



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

José María Alzuri Vértiz
Maria Larretxea Echeverria
Pedro Francisco Mindegia Elizalde
Ainhoa Bereau Altxu
(Kontuhartzailea)

2024ko martxoaren 27an, 15:30ak direnean, ezohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira

1. AURREKO BILKURAKO AKTAK ONETSI.

Aurreko akta ez da aurkeztu, beraz hurrengo osoko bilkuran onartuko da.

2. ESKAERAK

2.1 Kantauri Hidrografiko Konfederazioak, egoitza elektroniko bidez 148/2024 zenbakiarekin eskaera bat aurkeztu zuen udalan. Mendaurre aldean SAI bat jartzeko, uraren datu meteorologiko, hidrografiko eta kalitate datuak biltzeko, Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 5

Abstentzio 2

1.- Kokapena ikusita aldatzeko eskatzen da. Aipatutako kokapena aparkaleku baten ondoan dago eta ez da leku egokia, pixkat gorago edo beherago jartzea eskatzen da.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

2.2.- Itziar Bazterrika Arretxea andreak 184/2024 zenbakiarekin eskaera bat aurkeztu zuen udalan. Yoga taldeko emakumeak eta familia espazioa taldearen izenean. Hurrengo negura begira espazio bero eta goxo bat izateko aukera eskatzen dute, Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 5

Abstentzio 2

1.- Eskaera onartzen da. 2024ko negurako, udalak gela bat egokitu du, lanak egiteko auzolana konbokatuko da.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2.- Irailean talde bakoitzak eskaera egin beharko dute, ordutegiak zehaztuz.

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

2.3.- Osasuna Fundazioa Iturengo udalan laguntza eskaera aurkeztu zuen, 186/2024 zenbakia duena. Urteko laguntza 150 eurokoa da eta bi sarrera jasoko dira. Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **hurrengo erabaki du:**

Alde 5

Abstentzio 2

1.- Eskaera onartzen da. Osasuna Fundazioari 150 euroko dirulaguntza ematea.

2.- Sadarren jokatu duten partidura joateko ematen duten bi sarrera herritarren artean zozketa egingo da.

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea eta alkateari boterera eman imprimakia sinatzeko.

2.4. Zubillaga Saralegui, S.L. enpresak Donezteben egur lotea atera behar du eta Ameztin egurra uzteko baimena eskatzen du. Gaia eztabaidatu ondoren Udalbatzak **hurrengo erabaki du:**

Alde 5

Abstentzio 2

- 1. Baimena ematen zaio, atxikituta dagoen mapan egurra uzteko tokia zehaztuz.**
- 2. Lehentasuna izango du herriko oihan aprobetxamendua ateratzen ari direnak.**
- 3. Akopioa ezin izan da 100 tonelada baino gehiagokoa izan.**
- 4. Epea: Ekaina bukaerako dena garbia egon beharko da.**

2.5 “Yala Nafarroa con Palestina” taldekoek, Palestinarekiko elkartasunean laguntza ekonomikoa eskatu dio udalari. Udalbatzak **hurrengo erabaki du:**

Alde 5

Abstentzio 2



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

1.- Yala Nafarroa con Palestina erakundearen eskaera diruz laguntzea 100 euroekin, Mundu bat GKEaren bitartez.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

2.6 Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) Iturengo udalari sartzeko eskaera egin zioten Gaia eztabaidatu ondoren Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 5

Abstentzio 2

- 1. Bilera bat eskatzen dugu urrirako, proiektua azaltzeko Iturengo udalan eta onartzekotan 2015eko aurrekontuan sartu beharko genuke.**
- 2. Akordioa interesatuari jakinaraztea**

3. ALKATE EBAZPENAK

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (13/2024. ebazpenetik 31/2024. ebazpena) eta Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

4. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Jarraian Udalbatza herriko gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da:

Kantauri Konfederazio Hidrografikoaen txostena Aitor Herrero Larrarte baimena emanaz, 2 poligonoko 925 eta 191 solera eta ur fekalen hodiaren konexioa egiteko—Landa Garapeneko eta Ingurumeneko departamentuko ebazpena sakabanatutako zuhaitzak ateratzeko eta emandako baimena M^a Sagrario Iribarren Elizalde--- Lurralde Kohesiorako Departamendutik 28E/2024, otsailaren 6koa ebazpena J.C.L. zigortzaile espediente bukaera----

5. GALDERA-ESKAERAK

Ez dago galde-eskerik.

Eta bertzerik ezean, 16:30ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

